

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 450.000 euroko laguntzak deitu dira baso- produktuen teknologian, transformazioan eta komertzializazioan inbertitzeko

*Basogintzako ustiapenera eta lehen transformaziora zuzenduta daude*

Ostirala, 2018.eko martxoak 9

Nafarroako Gobernuak baso-enpresei nahiz basogintza-produktuen industriei zuzendutako 450.000 euroko guztizko balioa duten laguntzak deitu ditu, baso-produktuen teknologia, transformazioa eta komertzializazioaren aldeko inbertsioak sustatzeko. Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 25ean bukatuko da.

Hala jaso da, el [Nafarroako Aldizkari Ofizialak \(NAO\) gaur, ostirala, martxoak 9](#) argitaratutako Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusi Eva Garciaren ebazpenean

Laguntza hauen onuradunak izan daitezke baso-titularrak diren persona fisiko edo juridikoak, publikoak nahiz pribatuak, baita udalerriak eta hauen elkarteak eta Nafarroan basogintza-ustiapenean zein lehen transformazioan diharduten enpresa txiki eta ertainak ere.

Dirulaguntza hauen bitartez, Nafarroako 2014-2020 Landa Garapenerako Programan baso-teknologietako nahiz basogintza-produktuen industrietako inbertsioak sustatzeko zehaztuta dauden laguntzak arautuko dira.

Helburu nagusia, baso-esparruen garapenean inbertitu eta basoen bideragarritasuna hobetzea da, Foru Komunitateko baso-ustiapenerako teknologiak, jardunbideak eta ekipamenduak hobetzea xede duten ekintzetan inbertitzeaz gain.